



ZIZURKILGO UDALA

### OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko urriaren 26, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

### CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **26 de Octubre de 2.015, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

### EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.09.28).

2.- UDALBILTZA PARTUZEURGOAN SARTZEKO PROPOSAMENA.

3.- AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.

4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/166tik 2015/177ra).

5.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2015eko urriaren 22an

Alkatea.

### ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (28.09.2015).

2.- PROPUESTA DE ADHESION A UDALBILTZA PARTZUERGOA.

3.- DECLARACION PRESENTADA POR EH BILDU EN RELACION AL 25 DE NOVIEMBRE, DIA INTERNACIONAL DE LA ELIMINACION DE LA VIOLENCIA CONTRA LA MUJER.

4.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (166/2015 al 177/2015).

5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 22 de Octubre de 2.015

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2015eko URRIAREN 26an EGINDAKO  
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DIA 26 DE OCTUBRE  
DE 2.015**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA/ALCALDE:**

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

Arkaitz Zaldúa Jauregi (EH Bildu)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.).

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita seiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) zinegotzia ez da etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN  
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA  
(2015.09.28).**

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) zinegotziak aipatutako zehaztasun bat zuzendu ostean Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2015eko irailaren 28an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintiséis de Octubre de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo la concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL  
ACTA DEL PLENO ANTERIOR  
(28.09.2015).**

Tras corregir una puntualización señalada por el concejal José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak), la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 28 de Septiembre de 2.015





ZIZURKILGO UDALA

## 2.- UDALBILTZA PARTUZEURGOAN SARTZEKO PROPOSAMENA.

Udalbiltza partzuergora sartzeko proposamena mahai gainean jarri da, eta partzuergoaren estatutuen berri eman da.

EAJ-PNV alderdiak adierazi du proposamenaren kontra bozkatuko duela; izan ere, Zizurkilgo Udala, ustez behintzat, Eudeleko kide da oraindik, eta, itxura guztien arabera, ezker abertzalea Eudelekin negoziatzen ari da Eudelen sartzeari. Ez zaie arrazoizkoa iruditzen bi erakundetako kide izatea aldi berean.

Euskal Sozialistak taldeak, berriz, esan du ez zaiola iruditzen Udalbiltzan sartzeari ezer berririk ekarriko duenik, Eudelen sartuta bagaude.

EH Bilduk erantzun die ez zaiola iruditzen bateraezina denik bi elkarteetako kide izatea aldi berean.

Eta Udalbiltzan sartzeari ez duela inolako ekarpenik egingo esan duenari gogorarazi dio azken urteetan Aranzadik ikertu ahal izan dituela inguru hauetako Gerra Zibileko lubakiak, Udalbiltzaren lankidetzari esker.

Jarraian, eta proposamena ikusirik, Udalbatzak bozketa egin du proposamena onartzeko. Emaiza honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 4 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Abstentzioak: 0.

Hortaz, Udalbatzak honako hau erabaki du, botoen erabateko gehiengoz:

Lehenengoa.- Udalbiltza Partzuergoaren Estatutuak onartzea eta partzuergoan sartzeko eskatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Udalbiltza Partzuergora bidaltzea.

## 2.- PROPUESTA DE ADHESION A UDALBILTZA PARTZUERGOA.

Se da cuenta de la propuesta de adhesión a Udalbiltza Partzuergoa, junto con los Estatutos de este consorcio.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que votará en contra de la propuesta, dado que este Ayuntamiento, que se sepa, es todavía miembro de Eudel y parece ser que la izquierda abertzale está actualmente negociando con Eudel la integración en el mismo. No le parece razonable pertenecer a las dos entidades a la vez.

Por su parte Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak dice que si ya estamos en Eudel, no cree que la incorporación a Udalbiltza pueda aportar nada nuevo.

EH Bildu responde diciendo que no cree que sea incompatible el pertenecer a la vez a las dos asociaciones.

Y en cuanto a que Udalbiltza no aporta nada, recuerda que, por ejemplo, en estos últimos años, gracias a la colaboración de Udalbiltza, Aranzadi ha podido hacer un estudio sobre las trincheras de la guerra civil en la zona.

Seguidamente y vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de EH Bildu).
- Votos en contra: 4 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que la Corporación, por mayoría absoluta de votos, acuerda:

Primero.- Aprobar los Estatutos de Udalbiltza Partzuergoa y solicitar la adhesión al consorcio.

Segundo.- Remitir este acuerdo a Udalbiltza Partzuergoa.



ZIZURKILGO UDALA

**3.- AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ EH BILDUK AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.**

Akta honen I Eranskinean jasota dago aurkeztutako Adierazpena.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 10 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

**4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/166tik 2015/177ra).**

2015eko irailaren 24tik urriaren 19ra Alkateak sinatutako 2015/166tik 2015/177ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatezaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**5.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

José Antonio Sánchez Almaraz zinegotzi jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) galdetu du zer kudeaketa egin diren urriaren 20an aurkeztu zituen mozioetan egindako eskaerei erantzuteko. Bat, aspalditik bukatuta dauden lan batzuk iragartzeko Eusko Jaurlaritzaren kartel bati buruzkoa, eta, bestea, Ugare auzoan dagoen zebra bide arriskutsu baten seinaleztapenari buruzkoa.

**3.- DECLARACION PRESENTADA POR EH BILDU EN RELACION AL 25 DE NOVIEMBRE, DIA INTERNACIONAL DE LA ELIMINACION DE LA VIOLENCIA CONTRA LA MUJER.**

La Declaración que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 10 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar la Declaración presentada.

**4.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (166/2015 al 177/2015).**


Se da cuenta del listado de los Decretos nº 166/2015 al 177/2015 firmados por la Alcaldía entre el 24 de Septiembre y el 19 de Octubre de 2.015 cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

**5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El concejal Don José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak), pregunta sobre las gestiones que se hayan realizado para dar cumplimiento a las peticiones presentadas por él en sendas mociones el día 20 de Octubre pasado, una de ellas referente a un cartel del Gobierno Vasco indicador de unas obras hace ya tiempo acabadas y la otra en relación a la señalización de un paso de cebra existente en Ugare auzoa que provoca situaciones de riesgo.





ZIZURKILGO UDALA

Alkateak erantzun dio kontuan hartu dituela mozioetan egindako eskaerak, eta agindu duela ahalik eta azkarren konponbidea emateko.

Eguneko Aztergaietatik kanpo eta presazkoa dela adierazi ondoren, gai hau aztertu da.

#### 6.- 2016 URTERAKO TAXI TARIFAK ONARTZEA.

AGITAX taxisten elkarteak eskatuta, Tolosaldea Garatzenek proposamen bat aurkeztu du 2016an inolako igoerarik ez ezartzeko Tolosalderako bateratutako taxi tarifetan. Hortaz, aurtengo tarifei eutsiko zaie horrela.

Proposamena ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du, emaitza honekin:

- Aldeko botoak: 10 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, aho batez onartu da:

Lehena.- 2016 urterako taxi tarifak, 2015 urteko berberak izatzen segitzea.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita hamabost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.  
ALKATEA.

Vº Bº  
EL ALCALDE.



El Alcalde le contesta que ya ha tomado nota de las peticiones que en las mismas se exponen y que ha ordenado se de una solución a las mismas a la mayor brevedad posible.

Fuera del Orden del Día y previa declaración de urgencia se trata el siguiente tema:

#### 6.- APROBACION, DE LAS TARIFAS DE TAXI PARA EL AÑO 2016

A petición de la asociación de taxistas AGITAX, Tolosaldea Garatzen ha presentado una propuesta para mantener sin incremento alguno las tarifas unificadas de taxi en la comarca de Tolosaldea para el año 2016, por lo que serían las mismas que se aplican en el presente año.

Vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 10 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, por unanimidad, se acuerda:

Primero.- Que las tarifas de taxi para el año 2016 sigan siendo las mismas que las actualmente vigentes en 2015

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y treinta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

## I ERANSKINA – ANEXO I

**ZIZURKILGO UDALA**

**2015 URR. 22**

**SARREREN ERREGISTROA**

Zenbakia ..... 1062 .....

### AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA – ERAKUNDE ADIERAZPENA

---

2015eko azaroak 25, emakumeen aurkako biolentzia oro baztertzen dugula ez ezik, biolentziak eragiten dituen eragile oro baztertzen dugula ere esateko eguna da, aski dela esaten jarraitzeko eguna da. Eta erakunde publikoak, borroka honetan lehentasunezko eragile izango garela berretsiz konpromiso zehatzak hartzeko eguna da. Ez dugu bakea eta normalizazioa lortuko gure herrian, emakume izateagatik biolentzia jasateko aukera bakar bat mantentzen den bitartean.

Horregatik, Zizurkilgo Udaleko EHBilduko taldeak, honako erakunde adierazpena aurkeztzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

#### ZIOA:

Azaroak 25a “Emakumeen aurkako biolentzia desagerrarazteko nazioarteko eguna” dela eta, Zizurkilgo Udal honek, emakumeek biolentzia matxista orogandik libre bizi ahalko diren bizitza espazio komunak eraiki asmoz, herri eta lurralde seguruak lortzeko, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala oinarri izango duten bizikidetza eredu libreak errealitate egiteko, jendarte egituratze parekidea lortzeko finean, herri konpromisoa sakontzeko ardura hartzen dugu; halaber, guztion konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa berresten dugu.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok, lehentasunezkoa behar du izan bere agenda politikoan eta jardun instituzionalean, biolentzia matxistarik gabeko herri eta lurralde libreak eraikitzea, eta jendarte parekidea babestea.

Hego Euskal Herrian, biolentzia matxistak behera egin beharrean, 2015 urtea amaitzear dagoela, nabarmen egin du gora aurrean. Ugariak ari dira izaten eraso sexistak eta erailketak ere.





## ZIZURKILGO UDALA

Biolentzia matxistaren azken estadioek, bortxaketa, jipoitzeak eta erailketek gora egin duten moduan, zeharkako beste biolentzia matxistek, eguneroko mikrobiolentziek ere, gora egin dute, eta herritarren artean barneratu eta normalizatzeko arriskua ere agertu da.

Horrela, 2015 urtean asko izan dira berriro bortxaketa saiakerak, neska eta emakumeen bizitzaren gaineko kontrolak (kontrol ekonomikoak, fisikoak, sexualak, afektiboak, sozialak, kulturalak), emakume ugarik jasan behar izan dute eguneroko jazarpenik (irainak, bazterkeriak, gutxiesteak) eta bestelako erasoak (prekarizazio laborala, enplegurik eza, zaintza lanen karga isila). Eguneroko mikrobiolentzia barneratuak eta normalizatuak daude jendarte eredu patriarkalaren baitan.

Premiazkoa da indarkeria sexistarekin harremana duten kasuak eta salaketak egunerokotasun normalizatutik desagerraraztea. Jai- zein jolas-esparruetan gure askatasuna baldintzatzen duten jazarpen eta gehiegikeria sexistek hor jarraitzen dute. Halaber, kezkagarriak dira lan-esparruan jazarpen sexistari buruz dauden datuak. Sexu ezberdineko pertsonen arteko botere harremanak eta gazte belaunaldien artean agertzen diren balore patriarkalak gero eta gehiago dira, eta, aldi berean, gazte askok beraien kideen aurka indarkeria erabiliz haien arteko harreman desorekatuak eraikitzen dituzte.

Jendarte eredua ezinbestean aldatu behar dugu biolentziarekin amaitu ahal izateko. Biolentzia horiek guztiak, makroak zein mikroak, desagerrarazteko modu bakarra, berau sostengatu, zuritu edo babestu dezakeen jardun oro alboratuz lortuko da.

Eta zeregin hau, ezinbestean hartu beharreko konpromiso hau, jendartea osatzen dugun eragile guztiok hartu behar dugu, bestela biolentzia matxista sostengatzen jarraituko dugu. Guztion ardura baita norberaren eragin esparrutik aurre egitea sor edo babes dezakeen biolentzia matxista ororekin amaitzea: erakunde publikoak, hezkuntza eragileak, komunikabideak, lan esparruko eragileak, kultura eragileak, ekonomia eragileak. Baina norbanakoek, familiek, lagunarteek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere erantzukizun zuzena dute.



## ZIZURKILGO UDALA

Biolentzia matxistari aurre egiteko moduak ere onartu eta babestu behar dira, helburua bakarra izanda borroka moduak anitzak behar baitira izan: autodefentsa feminista bide bat da, baina Beldur Barik ekimena, edo herrietako jaien testuinguruan sortu diren performance zein kale ekintzak, elkarte zein auzoetatik burutzen diren saioak, guztiak dira balekoak, guztiak babestu beharrekoak.

Hori dela eta, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, Euskal Herria feminista eta ekitatibo baten aldeko gure aldarrikapenak inoiz baino ozenago entzun behar dira, hori eraiki ezean ezinezkoa izango baitzaigu egiazko demokrazia erdiestea, honako konpromisoen bitartez:

### PROPOSAMENA:

- 1.- Zizurkilgo Udal honek, Emakumeen Mundu Martxak onartua duen biolentzia matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.
- 2.- Zizurkilgo Udal honek, talde feminista eta emakume taldeekin elkarlanean, hiriari lotutako biolentzia matxistei aurre egiteko emerjentziatzeko plan iraunkorra abian jarriko du, horretarako behar diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak aktibatuko dituelarik.
- 3.- Zizurkilgo Udal honek, emakumeen aurkako erasoak identifikatzeko, salatze, desagerrarazteko eta sortu aurretik aurreikusteko Biolentzia Matxistaren aurkako Behatokia abian jarriko du, emakume eta talde feministekin elkarlanean.
- 4.- Zizurkilgo Udal honek, izanak izena duenez, eta terminoak argitze aldera, etorkizunean "biolentzia matxista" terminoa erabiltzeari eutsiko dio, dagoeneko hedatua eta zabaldua dagoen kontzeptua baita adituen artean.
- 5.- Zizurkilgo Udal honek, berdintasun unitatea baliabide tekniko zein ekonomiko hornitu ez ezik, egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du, 2016 urteko aurrekontuak zehazten ari diren une honetan.
- 6.- Zizurkilgo Udal honek, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza enplazatzeko, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu partidak handitu, berdintasun zuzendaritzak indartu, epaitegiaren genero unitateak doitu eta legedia errebisatzeko konpromisoa hartzen du.
- 7.- Zizurkilgo Udal honek, enplazamendu zuzena egiten die hezkuntza eragileei ~~lerro kurrikularretan genero berdintasuna landu dezaten.~~





## ZIZURKILGO UDALA

6.- Zizurkilgo Udaletik, borroka feministarekin daukagun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko eta burujabea eraikitzeko bide eta tresna gisa.

7.- Azaroaren 25erako mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioekin bat egiten dugu eta bertan parte hartzeko deia egiten diogu jendarte osoari.